

2025EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 20 OGASUNA, FINANTZAK ETA AURREKONTUAK
Programa: 932201 IRUZURRAREN AURKAKO PREBENTZIOA ETA BORROKA

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2025

Departamento: 20 HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS
Programa: 932201 PREVENCIÓN Y LUCHA CONTRA EL FRAUDE

PROGRAMAREN MEMORIA	MEMORIA DEL PROGRAMA
---------------------	----------------------

I. MEMORIA

Arabako Foru Ogasunak, aurreko urteetan egindako jarduerak garatuz, jarraitu du zerga iruzurraren aurka gogotik borrokatzen 2025ean zehar.

Jarduera horren helburu nagusia da zergadun guztiek zerga eta forma betebeharrak guztiak betetzen dituztela bermatzea.

Zerga iruzurraren aurkako borrokaren jarduera hori bideratzeko, hainbat ekintza abiarazi dira; horiek guztiak laburbilduta, honela multzoka daitezke:

- ✓ Kudeatu beharreko informazio gehiago.
- ✓ Koordinazio handiagoa zerga administrazioen arteko informazioaren trukean.
- ✓ Zerbitzu eskaintza handiagoa, zerga betebeharrak borondatez betetzea errazteko.
- ✓ Iruzur fiskalaren molde berrien agerpena, jarduketak aurrera eramanez jarduera ekonomikoaren eremu berrietan (hala nola merkataritza elektronikoa), Internet bidezko webguneak erabiltzen dituzten sektore teknologikoetan eta ordainketa baliabide berrien erabileran.
- ✓ Aldian behin aitortzeko zergen eta zergaldirik ez duten zergen autoliquidazioa aurkeztu ez zuten zergapekoen kontrola egiten jarraitu zen.
- ✓ Zergadunen egiaztapen handiagoa egin zen arrisku fiskal handiko sektoreetan, hala nola beren jardueran balio erantsi handia duten profesionalak edo hartzaileak azken

I. MEMORIA

La Hacienda Foral de Álava continuando las actuaciones de años precedentes ha desarrollado de forma intensa en el año 2025, la actividad de la lucha contra el fraude fiscal.

La finalidad última de esta actividad es garantizar el cumplimiento de las obligaciones tributarias y formales por parte de todos los contribuyentes.

La actividad de la lucha contra el fraude fiscal se concretó fundamentalmente en una serie de actuaciones que se pueden agrupar de forma resumida en:

- ✓ Un aumento del volumen de información a gestionar.
- ✓ Una mayor coordinación en el intercambio de información entre las administraciones tributarias.
- ✓ El aumento de la oferta de servicios para facilitar el cumplimiento voluntario de las obligaciones fiscales.
- ✓ La aparición de nuevas formas de fraude fiscal, que se ha concretado en actuaciones en nuevas áreas de actividad económica como el comercio electrónico, y sectores tecnológicos que utilizan páginas web a través de la red de internet y la utilización de nuevos medios de pago.
- ✓ También se continuó el control de los obligados tributarios que no presentaron autoliquidación tanto de los impuestos de declaración periódica como de los impuestos sin periodo impositivo.
- ✓ Se efectuó una mayor comprobación de contribuyentes de Sectores con elevado riesgo fiscal: como profesionales con alto valor añadido en su actividad, o negocios

2025EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 20 OGASUNA, FINANTZAK ETA AURREKONTUAK
Programa: 932201 IRUZURRAREN AURKAKO PREBENTZIOA ETA BORROKA

kontsumitzaileak hartzaileak dituzten negozioak, jarduera bolumen handia dutenak.

- ✓ Zergapekoen jarduera ekonomikoen kontrol handiagoa egin zen.

Zerga berezien kontabilitate liburuaren berehalako hornidura (Silicie).

2025ean, sistema horren bidez eskura zegoen informazioa aztertzeko eta ustiatzeko jarduerak bultzatu dira.

2025ean, emandako informaziotik abiatuta, lurralde erkidean eta foru-lurraldean egindako eragiketen bolumenaren zehaztapena aztertu da, Arabako Lurralde Historikoan jarduten duten hidrokarburoen merkaturatzaileei dagokien Balio Erantsiaren gaineko Zerga ordainarazteko, biak barne.

Era berean, ekitaldi honetan:

- Urteko Ikuskatze Planak bultzatzen jarraitu da. Plan horietan bildu da zuzendaritzako zerbitzuek iruzurraren aurkako borrokan egiten duten jarduera osoa, eta kontuan hartu dira kalitatearen sustapena eta informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien erabilera, azkar erreakzionatzeko iruzurrezkoak izan daitezkeen jokabiderik hautemanez gero, baita zergadunarentzako informazioaren eta laguntzaren hobekuntza ere.
- Foru araudia garatzen esku hartu da.
- Langileen prestakuntza sustatu da, tresna berriak erabil ditzaten.
- Ikuskatze Zerbitzua baliabide teknologikoz hornitu da.
- Zerga garrantzia duten datuak atzitzeko eta egiaztatzeko sistemak eta eskuragarri dagoen informazioa kargatu eta kontsultatzeko sistemak hobetu dira
- Informazioa beste administrazio batzuekin trukatzeko sistemak indartu eta hobetu dira.

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2025

Departamento: 20 HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS
Programa: 932201 PREVENCIÓN Y LUCHA CONTRA EL FRAUDE

cuyos destinatarios sean los consumidores finales, con un elevado volumen de actividad.

- ✓ Tuvo lugar un mayor control de las actividades económicas de los obligados tributarios.

Suministro Inmediato de Libros Contables de Impuestos Especiales (Silicie).

En 2025 se impulsaron las actuaciones de análisis y explotación de la información disponible a través de este sistema.

En 2025, a partir de la información proporcionada, se ha analizado la determinación del volumen de operaciones efectuado en territorio común y foral, a efectos de la exacción del Impuesto sobre el Valor Añadido, ambos inclusive, correspondiente a comercializadoras de hidrocarburos que operan en el Territorio Histórico de Álava.

Asimismo, durante este ejercicio:

- Se continuó dando un impulso a los Planes de Inspección Anuales que recogen toda la actividad de los Servicios de la Dirección en la lucha contra el fraude y han tenido en cuenta el impulso de la calidad y el uso de las nuevas tecnologías de la información y comunicación, con el fin de reaccionar con rapidez ante la detección de conductas potencialmente fraudulentas, junto con la mejora en la información y asistencia al Contribuyente.
- Se ha participado en el desarrollo de la normativa Foral.
- Se impulsó la formación del Personal en el uso de las nuevas herramientas.
- Se ha dotado al Servicio de Inspección de medios tecnológicos:
- Mediante la mejora en los sistemas de captura y verificación de datos con relevancia fiscal, así como en los sistemas de carga y consulta.
- Se han intensificado y mejorado los sistemas de intercambio de información con otras

2025EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 20 OGASUNA, FINANTZAK ETA AURREKONTUAK
Programa: 932201 IRUZURRAREN AURKAKO PREBENTZIOA ETA BORROKA

- Hobekuntza horien azken xedea zerga iruzurraren aurkako borrokaren jarduketak eraginkorrak izatea izan da.
- Kanpoko informazioa txertatzeko sistemak homogeneizatzea helburu duten proiektuei ekin zaie, sistema horiek erabilgarriak baitira kudeaketa prozesuetan nahiz zergadunak aukeratzeko prozesuetan, kontrol plan egokietan sartzeko.

2025ean, TicketBAIri dagokionez, honako ekintza hauek egin dira:

- a) Zergadunei informazioa eman zaie sistema berriaren edukiari eta funtzionatzeko moduari buruz. Horretarako, arretarako hainbat bide erabili dira, eta, bereziki, web orriko edukiak zabaldu eta eguneratu dira; garrantzi berezia eman zaio ohiko galderen eta erantzunen atalari. Horrez gain, bilerak egin dira kolektibo sektorialen ordezkariekin, eta hori guztia beste bi lurraldeekin koordinatuta egin da, zergadunek ahalik eta azkarren eta modu osoenean argitu ahal izan ditzaten betebeharrak betetzeari buruz dituzten zalantzak.
- b) Zergadunei lagundu zaie sistema berriaren betebeharrak betetzen, eta, bereziki, softwarea garatzen duten enpresei, banatzen dituzten softwareen funtzionamendu egokia ziurtatzeko eta sistemaren balidazioak ez betetzeagatik gertatzen diren erroreak eta ezesteak minimizatzeko.
- c) FakturAraba aplikazioaren funtzionalitateak zabaldu eta hobetu dira. Foru Ogasunak berak garatu du aplikazioa, eta pertsona eta erakundeen eskura jarri du, TicketBAI sistemaren baldintzak betetzen dituzten fakturak jaulkitzeko.
- d) FakturArabaren bidez bidalitako fakturak kontsultatzeko web aplikazioa zabaltzea eta hobetzea, bai eta TicketBAI Erregistroan

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2025

Departamento: 20 HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS
Programa: 932201 PREVENCIÓN Y LUCHA CONTRA EL FRAUDE

Administraciones.

- Estas mejoras han tenido la finalidad última de hacer más efectivas las actuaciones de la lucha contra el fraude fiscal.
- Se han abordado proyectos dirigidos a lograr una homogeneización de los sistemas de incorporación de información externa, de utilidad tanto en los diferentes procesos de gestión, como en los procesos de selección de contribuyentes, a los efectos de su integración en los planes de control correspondientes.

En el año 2025, en relación con el TicketBAI, se realizaron las siguientes acciones:

- a) Informar a las personas contribuyentes sobre el contenido y forma de funcionamiento del nuevo sistema, a través de los diferentes canales de atención, y en particular, mediante la ampliación y actualización de los contenidos de la página web, con especial consideración al apartado relativo a las preguntas y respuestas frecuentes, mantenimiento de reuniones con representantes de colectivos sectoriales, todo ello en coordinación con los otros dos territorios, con el fin de que las personas contribuyentes puedan resolver las dudas en relación con el cumplimiento de las nuevas obligaciones de la forma más rápida y completa posible.
- b) Asistir a las personas contribuyentes en el cumplimiento de las obligaciones del nuevo sistema, y en particular, a las empresas desarrolladores de software para asegurar el correcto funcionamiento de los softwares que distribuyan y para minimizar los errores y rechazos que se producen por no cumplir con las validaciones del sistema.
- c) Ampliar y mejorar las funcionalidades de la aplicación desarrollada por la propia Hacienda Foral (FakturAraba) puesta a disposición de las personas y entidades para emitir facturas que cumplen con los requisitos del sistema TicketBAI.
- d) Ampliar y mejorar la aplicación web relativa a la consulta de facturas enviadas mediante FakturAraba como con cualquier otro software

2025EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 20 OGASUNA, FINANTZAK ETA AURREKONTUAK
Programa: 932201 IRUZURRAREN AURKAKO PREBENTZIOA ETA BORROKA

inskribatutako beste edozein software ere.

Aplikazio horrek aukera ematen du bidalitako fakturen xehetasunak eta gorabeherak kontsultatzeko, faktura horien zerrendak deskargatzeko eta BEZari eta sozietateen gaineko zergari buruzko ereduak aurkeztea erraztuko duten aitorpenetarako laburpenak lortzeko.

- e) IZENPErekin koordinatzen jarraitu da, TicketBAI fitxategiak sinatzeko betekizunaren funtzionaltasuna ziurtatzeko.
- f) Fakturak zuzen egin eta entregatu direla egiaztatze jarduketak egin dira, bai eta TicketBAI betebeharraren mende dauden enpresaburuek eta profesionalek fakturen fitxategiak bidali dituztela egiaztatzeak ere.
- g) Jasotako TBAI fitxategiak kontrolatzea, eta BEZari eta sozietateen gaineko zergari buruz aurkeztutako aitorpenetan eta autolikidazioetan jasotako datuekin alderatzea eta aztertzea.

Bestalde, SENDAUDIT programa berriaren tresna informatikoa garatzen jarraitu da; programa horrek aukera ematen du merkatuan dauden egungo sistema informatikoen formatu eta ezaugarri berrien informazioa sartzeko.

II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN GAUZATZE-MAILA

Iruzurraren aurkako borrokaren helburua betetzeko, honakoak egin dira 2025eko ekitaldian:

- Ikuskatze jarduketaren kopurua: 4.133
- Egiaztaturiko pertsona fisikoen kopurua: 1.543
- Egiaztaturiko pertsona juridikoen kopurua: ... 2.990
- Egiaztapen informatikoen kopurua: 56
- Ikuskapen jarduketaren zenbatekoa, guztira: 77.479.613,44 €
- Kudeaketa jarduketaren zenbatekoa, guztira: 17.402.253,24 €
- Ikuskatutako sektore berrien kopurua: 1

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2025

Departamento: 20 HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS
Programa: 932201 PREVENCIÓN Y LUCHA CONTRA EL FRAUDE

inscrito en el Registro TicketBAI.

Dicha aplicación permite consultar los detalles e incidencias de las facturas enviadas, descargar listados de dichas facturas, así como obtener resúmenes para declaraciones que faciliten el cumplimiento de presentación los modelos relativos al IVA y al Impuesto sobre Sociedades.

- e) Continuar la coordinación con IZENPE a efectos de asegurar la funcionalidad del requisito de firma de los ficheros TicketBAI.
- f) Realizar actuaciones de verificación de la correcta expedición y entrega de las facturas, así como del envío de los ficheros correspondientes a las mismas por los empresarios y profesionales sujetos a la obligación TicketBAI.
- g) Control de los ficheros TBAI recibidos y su contraste y análisis con los datos incluidos en las declaraciones y autoliquidaciones presentadas correspondientes al IVA e Impuesto sobre Sociedades.

Por otra parte, se ha continuado desarrollando la herramienta informática, del nuevo programa SENDAUDIT, que permite facilitar la entrada de información de los nuevos formatos y características de los actuales sistemas informáticos que están en el mercado.

II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

Para el cumplimiento del objetivo de lucha contra el fraude, durante este ejercicio 2025 se han realizado:

- Número de actuaciones de Inspección: 4.133
- Número de personas físicas comprobadas: ... 1.543
- Número de personas jurídicas comprobadas: 2.990
- Número de comprobaciones informáticas: 56
- Importe total actuaciones Inspección: 77.479.613,44 €
- Importe total actuaciones Gestión: 17.402.253,24 €
- Número de nuevos sectores objeto de inspección: 1